



AGINDUA, OSASUNEO SAILBURUARENA ETA SEGURTASUNEO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA EGITEN BAITZAO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IGERILEKUEN ETA UR-JOLASGUNEEN OSASUN- ETA SEGURTASUN-IRIZPIDEAK EZARTZEN DITUEN ETA HAIEN ERREGISTROA SORTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUARI.

Osasun Sailak eta Segurtasun Sailak, batera, xedapen orokor bat egingo dute, Euskal Autonomia Erkidegoko igerilekuen eta ur-jolasguneen osasun- eta segurtasun-irizpideak ezartzeko eta haien erregistroa sortzeko.

Izaera orokorreko arau-xedapenak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen 2017ko abenduaren 12ko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez, aldez aurreko kontsulta-izapidea egitea erabaki zen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 133. artikulua 1. apartatua xedatutakoa betetzeko, zehazki, herritarrekin duen interakzio-izapideari bidea emateko, zeina arau-testu juridiko zehatz bat onartu aurretik egin behar den.

Alderdi hauek bildu behar ditu kontsultak:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukerak.

Horregatik guztiagatik, hoguei egun baliouduneko epea ezartzen da, xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek iritzia emateko aukera izan dezaten. Izapide hau araua gauzatu aurretik egiten da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua arautzen duen hasiera-fasearen barruan.

Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 319/2024 Dekretuak eta Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 318/2024 Dekretuak emandako eskumenari jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUGU:

Lehenengoa. - Aurretizko kontsultaren izapidea egitea Euskal Autonomia Erkidegoko igerilekuen eta ur-jolasguneen osasun- eta segurtasun-irizpideak ezartzen dituen eta haien erregistroa sortzen duen xedapen orokor baten proiektuari, proiektu hori egin baino lehen.

Bigarrena. - Hogei egun balioduneko epea ezartzea, arauak ukitzen dituen herritarrek, entitateek eta erakundeek, hala irizten badiote, agindu honen eranskinean adierazitakoen gainean daukaten iritzia azaldu dezaten, Agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

ALBERTO MARTÍNEZ RUIZ
OSASUNeko SAILBURUA

BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI
SEGURTASUNeko SAILBURUA

ERANSKINA

1.- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

Erabiltzaileen osasuna babesteko azken helburuarekin, dekretu-proiektu honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko igerilekuen eta ur-jolasguneen irizpide tekniko-sanitarioak eta segurtasunekoak ezartzea.

Bertan ezartzen dira uraren eta airearen kalitatearen osasun-irizpideak, instalazioen kudeaketa-sistema, komunikazioak, erregistroa, eskumen-araubidea, ikuskapenak eta zehapen-araubidea.

Era berean, igerilekuen eta jolasguneen segurtasun-irizpideen ikuspegitik, proiektu honen bidez lege-esparru bat finkatu nahi da, instalazio horien erabiltzaileei segurtasun handiagoa emango diena. Horretarako, istripuak eta gorabeherak saihesteko beharrezkoak diren segurtasun- eta autobabes-neurriak ezarriko dira, sorosle-zuzkidurak zehaztuko dira eta esparruak ikuskatzeko araubidea arautuko da.

2.- Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.

Aintzat hartuta tratamenduen teknologiek izan duten bilakaera, ebidentzia zientifiko berriak agertu direla, oinarritzko alderdiei buruzko erregulazio berriak argitaratu direla eta eskumen-banaketa berriak egin direla, beharrezkoa da erabilera kolektiboko igerilekuen osasun-araudia onartzen duen 32/2003 Dekretu autonomikoa eguneratzea.

Gainera, kontuan hartu behar da aldi horretan Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legea eta hura garatzeko erregelamendua (otsailaren 5eko 17/2019 Dekretua) egin direla Euskal Autonomia Erkidegoan. Araudi horrek igerilekuak sartzan ditu bere aplikazio-eremuan, *“jolas-jardueren establezimendu”* gisa, eta instalazioen segurtasunari buruzko zenbait xedapen jasotzen ditu, zeinak nahitaez igerilekuei buruzko erregulazio espezifikoarekin ulertu eta osatu behar baitira.

Halaber, honako dekretu honetan jasotako erregulazioa aintzat hartu behar da: 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituen, larrialdiei aurre egiteko.

3.- Egin nahi den arau-proiektuaren helburuak.

Dekretu-proiektu honen helburua da araudi bakar batean jasotzea igerilekuetan eta ur-instalazioetan pertsonen osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen alderdi guztien erregulazioa.

Eraikuntzako, instalazioetako, zuzkiduretako eta kudeaketako alderdiak dira, bainatzeko uraren eta barruko airearen kalitateetik eratorritako osasun-arriskuak eta balizko istripuekin lotutako arriskuak prebenitzeko.

Era berean, instalazioen segurtasunaren arloan, igerilekuei buruzko araudia establezimendu publikoei buruz dagoen araudira egokitu nahi da, eta esparru juridiko egonkor bat ezarri honako hauei dagokienez: instalazioetan eska daitezkeen

segurtasun-neurri eta -elementuak, sorosleen presentzia edo segurtasun-baldintzak ikuskatzeko araubidea.

4.- Izan litezkeen bestelako aukerak.

Aurreko apartatuetan adierazitakoak kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da dekretu-proiektu hau egitea, ez baita bestelako irtenbiderik hautematen.